

## XXXVI. Antzerki Astea

### 1. EGITARAUA

Ondorengo atalean, XXXVI. Antzerki Asteak izango duen egitaraua ageri da, egunez egun. Jaialdiak bi asteko iraupena izango du, eta ekaineko lehen bi asteetan ospatuko da.

Ekainak 1, osteguna.

#### **EUTSI RAMON!** (kale antzerkia)

Taldea: Trapu Zaharra

Ordua: 19:00

Lekua: Arakistain Plaza

*“Kolapsoa” izango da enpresa haundi honek duen aitzakia bere eskaintza paregabea martxan jartzeko: goi mailako Bunkerrak eskaintzea.*

*Hau promozionatzeko, probaleku mugikor batean, zuzenean, enpresak lehiaketa bat antolatuko du.*

*Lehiakideak froga desberdinak egin beharko ditu hau lortzeko eta, ikuslegoak, “Idi-proba” batean bezalaxe, ariketa bakoitzean apustuak egingo ditu.*

*Lehiaketa umiliagarrietaz, kataklismoetaz, ansiolitikoetaz... arituko dira.*

Ekainak 2, ostirala.

#### **EZ, EZ NAIZ AKORDAITTEN**

Taldea: Bai eta gainera (Oñati)

Ordua: 19:30

Lekua: Ispiluen gela

*Alzheimerra daukan emakume baten istorioa eta hark bizitako hainbat pasadizo.*

#### **AÑENAK PUBLIKOARI**

Taldea: Buselektrikue (Bermeo)

Ordua: Luncharen ondoren

Lekua: Ispiluen gela

*“Zuek ikusiko duzuen ez da antzezlan bat. Gau honetan ez da komedia bat antzezen. Ikusteko ezer ez duen ikuskizun bat ikusiko duzue.”*

*Bukatu dira amets egiteko istorioak, bukatu dira sentimendu merkez hornitutako aktoreak, bukatu da kontaketa lineala, bukatu da antzerkia. Bukatu da antzerkia, behingoz antzerkiarekin hasteko.*

Ekainak 3 eta 4, larunbata eta igandea.

### **Salbe, Publikoa**

Taldea: Goaz Antzerki Taldea

Ordua: 19:00 eta 20:30

Lekua: Adirre lauregia

Ekainak 6, asteartea.

### **PINTTO PINTTO** (haurrentzat antzerkia)

Taldea: Anita Maravillas

Ordua: 17:30

Lekua: Aldats Pilotaleku



*Pintto galdu egin den txakurkume bat da. Pinttok jolastea maite du, baina badirudi norbaitek beldur diola eta ez duela berarekin jolastu nahi.*

*Pinttok, adiskidetasunaren jokoak zein zoragarria eta zein sinplea den gogorarazten digu.*

Ekainak 7, asteazkena.

-----

Taldea: Aizarnako ikasleak  
Ordua: 10:30 eta 11:30  
Lekua: Goazen Osioko lokala

*Oraindik ez dugu ez izenburu ezta sinopsirik ere.*

Ekainak 8, osteguna.

### **GIZA SALTSA**

Taldea: Aitor Vinagret  
Ordua: 19:00  
Lekua: Burugorri (Itziar)

*Lasai mundu guztia! Izenburua oso "pelikuleroa" dela badakigu, baina eszenatokian dagoen aktorea ere bai.*

*Ez izutu! Hau komedia bat da! Barreak eragingo ditugu, saiatuko gara behintzat. Nortzuk? Aktorea eta bere pertsonaiak, Epi eta Blas, Juana de Arco...*

*Etorri, zin egiten dizuegu ez dugula publikoarekin kanibalismoa praktikatuko, benetan.*

*Eszenatokian egongo den gizakiak bere alegiazko munduan murgilduko du publikoa komediaz eta akziozko beteriko gizasaltsan. On egin!*

Ekainak 9, ostirala.

### **KIMERA**

Taldea: La banda Teatro Circo  
Ordua: 19:00  
Lekua: Plaza Zaharra



Zamalanetako kaia. Lanean, pasaeran edo bizitza hobearen bila iristen diren pertsonak. Kimerak egungo gizarteari begiratzen dio, pertsonak handi egiten dituzten gauza txiki horiek zein hauskorak diren erakutsi nahian. Bidenabar, globala tokikotik alda daitekeela ere erakusten digu.

Pentsarazten digu zergatik joaten ote den hainbeste jende, dena atzean utzita, leku ezezagun, babesgabe eta harremanik gabeko batera; non, hori bai, etorkizuna nahiz zalantzazkoa eta oso iluna izan, beti izanen baita itxaropentsuagoa jatorrizko tokian baino.

Ikuskizunak dibertigarria eta, aldi berean, hunkigarria izan nahi du. Bertan, begirada, gorputza, eta trebezia elkartzen dira unibertso berezia eraikitzeko zirraraz beteriko mundu soinudun batean. Lan hau, zirkoaren hizkuntza baliatuz, "Linh jaunaren biloba" obraren antzeppen oso askea da.

Ekainak 10, larunbata.

## **ITSAS BEHERA**

Taldea: Pez Limbo

Ordua: 22:00

Lekua: Aldats Pilotalekua



*Bi gizabanako, beraiek eraikitako mundu batean isolatutako bi gizabanako, irteera baten bila dabilta. Gogo handirik gabe egiten dute, funtsean badakitelako hor ondo daudela. Behintzat, egon badaude: ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Batak bestea dauka eta elkar zaintzeko beharra sumatzen dute. Gaua, beltza, kosmosaren hutsa, beren benetako etxea, erosotasun-gunea izan daitekeela susmatzen dute.*

*ITSASBEHERA: Etxean tanga, txankleta eta lumazko berokiaren ibiltzearen existentzialismoa.*

Ekainak 11, igandea.

## **ZAHARRAK BERRI**

Taldea: Txalo Talo (Berrobi)

Ordua: 19:00

Lekua: Ispiluen gela



*Tradizioa, lehengo bizimodua, ohitura zaharrak eta gaur egungo berriak uztartu ezin direnean... gatazkak sortzen dira. Hori da, lan honetako eszena ezberdinetan ikusiko dena. Gizakiaren beharrak ordea, lehengoak izaten jarraitzen dute.*